



## ERANSKINA

### TEKAZELentzako HOBEKUNTZA IKASTAROAK

#### 2024 URTEA (urtarril-ekain)

UPV/EHUko III. Euskara Plan Gidarian jasota dagoen moduan, TEKAZELen hizkuntza-prestakuntza etengabe hobetu nahian, TEKAZELentzat hobekuntza ikastaro berezituak eskaintzen dihardu Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak.

2023/2024 ikasturte honetan, IVAPEk egindako berariazko eskaintzako zenbait ikastaro egin ahal izan dira udazkenean. Eta urte hasieratik ekaina bitartean, beste eskaintza hau egingo da: batez ere langileei, jakintzatik erabilerara jauzia egiteko baliabideak eman nahi dizkiegulako.

Euskararen erabilera bultzatzeko, euskaraz idatzi eta hitz egiteko guneak sortu nahi ditugu, eta gune horiek ondoren lantokietaraino hedatu daitezela.

Saio hauetan, euskararen erabileran segurtasuna berreskuratzea da helburu nagusia. Eta horretarako erabili daitezkeen estrategiak aztertuko dira eta lanerako erregistro, lexiko, testu eta diskurtso motak jorratuko dira.

Deialdi honen bitartez 2024ko urtarrilean hasi eta ekainera bitarteko **HOBEKUNTZA IKASTAROETAN** izena emateko epea zabaltzen da.

#### Ikastaroak

Saioa	Lekua	Gutxiene ko HE	Helburua
<b>"Euskarari beldurra kenduz, ahozkoan lehen urratsak "</b>	Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioa	1. HE	<ul style="list-style-type: none"> <li>2.HEko azterketa gainditzeko atarian dauden langileentzat.</li> <li>Euskararen erabileraren "beldurra" gainditzeko eman behar duten saltoa emateko laguntza.</li> </ul>
<b>" Oinarrizko jarduna ahozkoan "</b>	Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioa	2. HE	<ul style="list-style-type: none"> <li>Modu sinplean bada ere, naturaltasunez hitz egitea lortu nahi duten langileentzat bideratutako ikastaroa.</li> <li>2HE egiaztatu duten langileentzat.</li> <li>Euskaraz hitz egiteko guneak bilatzen dituztenentzat.</li> </ul>



<p><b>"Administrazioan ahoz komunikatzeko gaitasuna lantzen"</b></p>	<p>Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioa</p>	<p>3. HE</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Beharrezkoak diren hizkuntza-baliabideak eta testugintzari loturiko aholkuak lantzea.</li> <li>• Testuaren kohesioa eta diskurtsoaren garapen orokorra eta egokitasuna lantzea.</li> <li>• Goi mailako mintzamina landu nahi duten ikasleentzat.</li> <li>• 3.HE egiaztatu duten langileentzat.</li> <li>• Euskaraz hitz egiteko guneak bilatzen dituztenentzat.</li> <li>• Testu komunikatiboak sortzeko gaitasuna lantzea.</li> <li>• Lehentasuna izango dute 3HE egiaztatua duten langileak 4HE egiaztatua dutenen aurrean.</li> </ul>
--	---	--------------	--

**Asteak:** 21

**Ordutegia:** Talde guztiek ordutegi bera izango dute, 08:00etatik 10:00etara. Ezinbestekoa izango da ikastarora garaiz heltzea, eskola bi ordukoa da eta. Ikastaroa egiteko onartuei, ikastaroak irauten duen denbora (soilik) emango die unibertsitateak. Horretarako gerentearen azken erabakiak eta baimenei buruzko azken zirkularrean adierazita dagoen moduan, bere 16.1.3. atalean dioena beteko da.

**Eguna:** Ostiraletan.

**Hasiera data:** Urtarrilak 13.

**Bukaera data:** Ekainak 23.

**Lekua:** Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioan. Campusean bertan.

**Taldeen antolakuntza:**

Taldeak sortzeko gutxienerako ikasle kopuru bat beharko da: 6 ikasle gutxienez eta 15 gehienez.

Gutxienerako kopuru hori egon ezean, ikastaroa bertan behera geratuko da.

**Onartua izateko baldintzak:**

- Eskatzen den HE egiaztatua izatea.
- Zerbitzuburuaren onespina.
- Eskarian, datu guztiak ongi betetzea.

**Oharra:** Lekurik balego, liberazioa dutenek, ordutegiak ez badu bat egiten, aukera izango dute ikastaroan parte hartzeko, gainontzeko baldintza guztiak betetzen badituzte.



### **Eskariak antolatzeko irizpideak:**

Hizkuntza eskakizuna, lan harremana, lanpostuaren unitatearen izaera eta antzintasuna izango dira kontuan.

Lehentasuna hauek izango dute:

- 2023/2024 ikasturtean, lanorduetan liberazioa ez duten langileak

### **Izena emateko epea:**

Eskariak aurkezteko epea **2023ko urriaren 25etik azaroaren 10era** arte izango da. Ez da epez kanpo aurkeztutako eskaririk onartuko.

### **Nola eman izena:**

Eskaerak Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren web orrian dagoen inprimakia beteaz aurkeztuko dira modu telematikoan. Inprimakia helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.ehu.es/eu/web/euskara/2023-10-24-hobekuntza-ikastaroak>. Eskabide bakoitzeko inprimaki bana bete behar da.

Eskaera egin ondoren, eskatzaileek eskaeraren datuak berresteko mezu bat jasoko dute beren helbide elektronikoa. Berrespen hori UPV/EHUren erregistro elektronikoa erregistratuko da: <https://egoitza.ehu.es/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUren txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoa identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere).

Era berean, berrespena aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

### **Onartu eta baztertuen zerrendak argitaratu:**

- Behin-behineko zerrendak **azaroaren 16an** argitaratuko dira.



- Erreklamazioetarako epea: **azaroaren 17tik azaroaren 28ra arte**. Erreklamazioak UPV/EHUko erregistro elektronikoen bitartez aurkeztuko dira, **Nola eman izena** ataleko argibideei jarraituz.
- Behin betiko zerrendak **abenduaren 1etik aurrera** argitaratuko dira.

### **Ikasleei buruzko informazioa eta datuen babesa**

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruz Europako Parlamentuaren 2016/679 EB Erregelamenduaren 13. artikuluan eta Kontseiluaren apirilaren 27ko xedatutakoarekin bat etorritik, jakinarazten dizugu zure datuak UPV/EHUren ardurapeko fitxategi batean sartuko direla, bai eta honako alderdi hauetan ere: datuak «AZPkoen Euskara Hizkuntza Prestakuntza» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira. Euskara hobetzeko eta euskarazko hizkuntza-eskakizuna lortzeko prestatzeko ikastaroak egiteko eskabideak kudeatzea da tratamenduaren helburua

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonen datuak Mondragon Lingua Soc. Coop. Enpresari jakinaraziko zaizkio. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeak eskubideak baliatu ahal izango dira, baita beste eskubide batzuk ere, helbidean eskuragarri dagoen <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/babestu> informazio gehigarrian azaltzen den bezala. Tratamenduari buruzko informazio osoa hemen dago: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/-/tg0061>

M. Juncal Gutierrez Mangado

**Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea**